



# TUTORE txostena

## UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Tutoretza Plana

### Edukien taula

---

Aurrekariak.....	2
Tutorearen profila eta prestakuntza .....	4
Tutorearen eginkizunak .....	5
Orientazio akademikoa.....	5
Orientazio pertsonala.....	6
Orientazio profesionala.....	6
Zientzia eta Teknologia Fakultateko Tutoretza Plana .....	6
Tutoretza prozesua .....	9
Gomendioak eta hobekuntza ekintzen proposamenak .....	11
Eranskina - Ikaslearen fitxa.....	11

## Aurrekariak


Zientzia eta Teknologia Fakultatean tutorearen irudia ikastegian eskaintzen ziren titulazioetako errendimenduen analisia egin ondoren ezarri zen. Analisi horrek zera utzi zuen agerian: eskolan porrot egiten zutenen indizea eta ikasturtea errepikatzen zutenena oso handiak zirela.

Arazo horiek arindu eta ikasleen errendimendu akademikoa hobetzen saiatzeko, 2001ean ikastegiko zuzendaritza taldeak bi ekintza proposatu zituen:

1. **Titulazio-koordinatzaileak** sortzea. Horien eginkizuna titulazioen kalitatea zaintzea eta horietako bakoitzari datxezkion arazoei aurre egitea izango litzateke.
2. **Tutorearen irudia** sortzea. Horren lana ikasleei Fakultatean sartzen direnetik ikasketak amaitzen dituzten arte eskaini behar zaien arreta hobetzea izango litzateke.

Koordinatzaileak sortzeko proposamena 2001eko martxoan gauzatu zen, Juan Ramón González Velasco dekanok 9 titulazioetako bakoitzeko koordinatzaileak izendatzearekin batera. Orduz geroztik, titulazio-koordinatzailearen irudia finkatu egin da, dituen eginkizunen garrantziari esker. KOORDINA hobekuntza taldeak eginkizun horiek aztertu zituen 2007an<sup>1</sup>.

Tutorearen irudia ere 2001ean sortu zen. Irudia ezarri zuten lehenengo titulazioak Fisika, Geologia, Ingeniaritza Elektronikoa eta Matematika izan ziren. 2002-2003 ikasturtean Kimikak ere barneratu zuen eta 2003-2004 ikasturtean, berriz, Ingeniaritza Kimikoak. Gaur egun, titulazio guztiek dituzte tutoreak, Biozientziak (Biologia eta Biokimika) izan ezik, nagusiki, titulazio horietan ikasle ugari baitaude. 1. irudiak Zientzia eta Teknologia Fakultatean Tutoretza Plana ezarrita egon den urteetan irakasle tutoreen kopuruak zer bilakaera izan duen jasotzen du.



1. irudia.- Fakultatean Tutoretza Plana ezarrita egon den denboraldian irakasle tutoreen kopuruak izan duen bilakaera.

<sup>1</sup> Ikusi KOORDINA txostena: <ftp://ftp.ehu.es/cidirb/centros/ztf/TUTORE/koordina.pdf> [600 KB]



Tutoretza Plana garatu den 8 urteotan, irakasle boluntario ugarik balio handiko esperientzia hartu dute arlo honetan. Hala ere, ikasleek ez dute interes maila bera erakutsi, neurri batean, Fakultateko tutoretza saioen sistemari buruzko informazioz ez dagoelako. 2010-2011 ikasturtean graduako titulazio berriak ezarriko direnez, beharrezkoa da irakasle horien esperientziak biltzea, tutorearen eginkizunak berriro definitzea, irizpideak bateratzea eta Zientzia eta Teknologia Fakultatean tutoretza lana zer esparrutan garatzen den zehaztea.

Zeregin horretarako, ikastegiko zuzendaritzak hobekuntza taldea sortzea proposatu zion Kalitate Katedrari. Xede horrekin, 2009ko otsailaren 19an, TUTORE taldea eratu zen. Ondorengoek osatzen dute:

- Esther Domínguez, Fakultateko dekanoa eta TUTORE taldearen sustatzailea.
- José Luis Pizarro, Kalitate eta Berrikuntza Programetako dekanordea eta taldearen koordinatzailea.
- Gloria Areitio, Kalitate Katedrako irakasle laguntzailea.
- Roberto Aguado, Ingeniaritza Kimikoa Saileko irakaslea.
- Pedro Alegría, Matematika Saileko irakaslea.
- José Javier Garitaonandía, Fisika Aplikatua II Saileko irakaslea.
- Juan Manuel González Mañas, Biokimika eta Biologia Molekularra Saileko irakaslea.
- Rosa Jiménez, Kimika Analitikoa Saileko irakaslea.
- M. Karmele Urriaga, Mineralogia eta Petrologia Saileko irakaslea.
- Nerea Zabala, Elektrizitatea eta Elektronika Saileko irakaslea.
- Ana Zubiaga, Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saileko irakaslea.

Talde honen helburua tutoreak zer eginkizun dituen eta bere lanean zer behar dituen zehaztea da. Lehenengo bileran lanaren ondorioak memoria batean biltzea adostu zen, besteak beste, ondorengo edukiekin: tutorearen irudiaren gaineko hausnarketak, bere eskumenen definizioa eta jarduteko protokoloa. Memoriako ondorioak P2.3.1 prozeduran barneratuko dira (*Ikasleentzako tutoretza*). Prozedura hori ikastegian dagoen Prozesuen araberako Kudeaketa Sistemaren graduoko prozesuari (P2) dagokio.

Ondoren, TUTORE taldeak egindako lanen emaitzak aurkezten dira. 2009ko otsaila eta ekaina bitartean egindako aldiaren behingo zenbait bileraren emaitza dira. Gainera, tutorearen<sup>2</sup> irudiari buruzko galdeketa ere egin da Fakultateko ikasleen artean. Galdeketa horretan guztira 386 ikaslek parte hartu dute. Galdeketa emaitzak oso lagungarriak izan dira agiri hau prestatzeko.

---

<sup>2</sup> Ikusi txostena: [ftp://ftp.ehu.es/cidirb/centros/ztf/TUTORE/Inf\\_EncuestaTutore\\_v3.pdf](ftp://ftp.ehu.es/cidirb/centros/ztf/TUTORE/Inf_EncuestaTutore_v3.pdf) [720 KB]



---

## Tutorearen profila eta prestakuntza

---

Gure ustez, tutoreak funtsezko eginkizuna izan dezake oinarrizko bi alderditan: (a) ikasleak titulaziora, ikastegira eta, oro har, unibertsitateko bizitzara egokitzerakoan eta horietan integratzerakoan, eta (b) curriculum eta, beraz, lanbide bitzita taxutu eta garatzeko orientazioa ematerakoan.

Hala ere, tutoretza lanarekin erlacionatutako zeregin guzti-guztiak burutzeko, beharrezkoa da pertsonen konpromisoa hartzea eta motibazioa izatea. Hori dela eta, gure iritziz, tutorearen profilik egokiena irakasle **boluntarioarena** izango litzateke. Irakasle horrek tutoretzapeko ikaslea egiten ari den titulazioan baino ez du irakatsiko eta ondorengo ezaugarriak izango ditu:

- Tutoretza lanaren aldeko jarrera izatea.
- Tutoretza lanarekiko konpromiso maila handia izatea, baita horri lotutako jarduera guztiekiko ere: ikasleentzako arreta, koordinazio eta berrikuste bilerak, etab.
- Aurretik oinarrizko prestakuntza hartzeko prest egotea.
- Pertsonetikiko traturako gaitasuna eta erraztasuna izatea.
- Ikasleekiko hurbila eta abegitsua izatea.
- Besteren kezkek entzuteko eta ulertzeko gaitasuna izatea.
- Iritzi pertsonalak errespetatuz hitz egin eta eztabaidatzeko gai izatea.
- Modu objektiboan aholku ematen jakitea.
- Enpatia arrazionala eta emozionala garatu izatea.

Beharrezkoa iruditzen zaigu tutoretza lanetan diharduten irakasleei prestakuntza ematea. Bi maila gomendatzen ditugu:

- **Tutore berrientzako derrigorrezko oinarrizko prestakuntza.** Tutoretza Planaz arduratzen den dekanordeak mintegia eskainiko du, gutxi gorabehera bi ordukoa. Ondorengoz hitz egingo da, besteak beste:
  - a) Zientzia eta Teknologia Fakultateko Tutoretza Planaren xehetasunak.
  - b) Euskal Herriko Unibertsitateko ikasketen araudia.
  - c) Tutoretza lanaren oinarriak tutore-ikasle elkarreraginean.
- **Borondatezko prestakuntza osagarria.** Tutoreen beharrak eta kezkek aintzat hartuta zehaztuko da.



---

## Tutorearen eginkizunak

---

Tutoretza lan egokirako giltzarria tutoretzapeko ikasleetako bakoitzarekin harreman pertsonala ezartzea da, bere aurrekari akademikoak, gaitasun eta trebetasun pertsonalak, nortasuna (izaera, kezkak, balioak, etab.) eta interes eta helburu profesionalak ezagutze aldera, unibertsitateko dinamikan ikaslea bideratu eta integratzeko.

Gure ustez, tutoreak bete behar dituen eginkizunak elkarren artean erlazionatuta dauden hiru eremutan bil daitezke: akademikoa, pertsonala eta profesionala. Nahiz eta eginkizun guztiak diren garrantzitsuak, horietako batzuk bereziki gailentzen dira unibertsitateko bizitzako aldi jakinetan, esate baterako, orientazio profesionala ematea ikasketak amaitzear daudenean.

### Orientazio akademikoa

- Ikasle berriei unibertsitate sistemaren inguruko informazioa ematea eta unibertsitateko bizitzara egokitzeko eta bertan integratzeko erraztasunak ematea.
- Esparru akademikoan sor daitezkeen zailtasunei konponbide posibleen inguruko aholkularitza eta orientazioa ematea.
- Campusean eta ikastegian dauden ikasketa baliabideei, informazio iturriei eta teknologiei buruzko informazioa ematea.
- Curriculum ibilbideak aukeratzeko orientazioa ematea, nahi den unibertsitate prestakuntza lortu ahal izateko (hautazko irakasgaiak, aukera askekoak, etab. aukeratzen laguntzea).
- Errendimendu akademikoa handitzeko ikasteko metodo espezifikoetarako buruzko orientazioa ematea.
- Tutoretza saioen erabilera sustatzea eta bideratzea.
- Irakasgaiak antolatzerakoan eta ematerakoan egon daitezkeen akatsak detektatzea.
- Tutoretzapekoari ezagutzarako grina piztea eta ikerketaren garrantzia ulertaraztea.
- Prestakuntza prozesuan ikasleak ere erantzukizuna baduela sustatzea.
- Beste jarduera akademiko batzuetan parte hartzeko orientazioa ematea: mugikortasun programak (Socrates-Erasmus, Séneca...), prestakuntza osagarriko ikastaroak, enpresetako praktikak, etab.
- Tutoretzapekoaren jarduera akademikoak dirauen bitartean helburuak argitzea, zereginak planifikatzea eta emaitzak gainbegiratzea.

## Orientazio pertsonala

- Ikasleek unibertsitateko bizitzan (bai jarduera akademikoetan bai kudeaketakoetan edo ludikoetan) parte har dezaten sustatzea, beren trebetasun sozialak hobetze aldera.
- Esparru akademikoan hausnarketarako, elkarrizketarako eta autonomiarako gaitasuna sustatzea.
- Ikasleari bere prestakuntza osoko prozesuan laguntzea eta orientazioa ematea, bere nortasuna aintzat hartuta.
- Arreta berezia behar duten kasuak zerbitzu egokietara bideratzea.

## Orientazio profesionala


- Proiektu profesionala aukeratzeko orientazioa ematea.
- Lanbidean jarduteko moduari buruzko informazioa ematea (lanbiderako sarbidea).
- Zeharkako gaitasunak sustatzea, besteak beste, honakoak:
  - Trebetasun sozialak.
  - Talde lana.
  - Konpromisoa.
  - Erabakiak hartzea.
  - Lidergoa, esate baterako, ikasleek elkarrekin parte hartuta edo ikasle berrien ikasle-tutore gisa.
  - Curriculum vitae-a prestatzea.

---

## Zientzia eta Teknologia Fakultateko Tutoretza Plana

---

Tutoretza Planaren egitura behar bezala definitzeak sisteman parte hartzen duten guztien arteko komunikazioa hobetzeko aukera ematen du, baita tutoretza lanaren beraren jarraipen egokia egiteko aukera ere. Gure fakultatean, egitura 2. irudian ageri dena da.



2. irudia.- Zientzia eta Teknologia Fakultateko Tutoretza Planaren egitura.

Ikasleen tutoretza prozesua graduako prozesuaren barruan (P2) kokatzen da eta P2.3.1 prozedurak deskribatzen du. 3. irudian, bere garapen orokorra agertzen duen fluxugrama ikus daiteke.

Ikasturtea hasi baino lehen, titulazio bakoitzeko koordinatzaileak gradu horretan tutoretza lanetan arituko diren irakasle boluntarioen zerrenda eskatzen die sailei. Zerrenda horretan, tutoretzapean zenbait ikasle badituzten irakasleak eta sisteman berriak diren irakasleak barneratzen dira.

Gure gomendioa da Graduako Ikasketen Batzordeak (GIB) zehatz ditzala nola esleitu tutoreak ikasle berriei. Gure ustez, metodorik gomendagarriena ikasturteetan etengabe esleitzea da: tutore bakoitzari gehienez bi ikasle berri ikasturteko (salbuespenezko kasuetan izan ezik).

Irakasle bakoitzak tutoretzapean dituen gehieneko kopuruak ez luke 10 baino handiagoa izan behar. Hala ere, muga hori titulazio bakoitzeko GIBk ebaluatu behar du, titulazio bakoitzean ikasle eta irakasleen arteko harremana ezberdina baita.


Ikasle orok tutore bat izango du. Tutoreak ikasketek dirauten bitartean emango dio orientazioa ikasleari.

Komenigarria da, ikasturtearen hasieran, aurreko ikasturteko Tutoretza Planaren garapenean detektatutako gorabeherak berrikustea eta, tutoretza lana zuzena izan den kasuetan, tutore-ikasle esleipena berriz aztertzea. Bai tutoreak bai ikasleak esleipena aldatzeko eska dezake, beharrezkoa ikusiz gero. Horretarako, tutoreen koordinatzailearengana (halakorik badago), ikasturteko koordinatzailearengana edo titulazio-koordinatzailearengana joko da.

Matrikula epez kanpo formalizatzen duten edo titulazioan goragoko mailetakoko batean hasten diren ikasle berriei titulazio-koordinatzaileak esleituko die tutorea ikaslea eskoletara joaten hasten denean.

Irakasle tutoreek ikasturtea hasi aurreko astean jasoko dute ikasle-tutore esleipenei buruzko informazioa. Orduan izango dute, halaber, Tutoretza Planaren eta eginkizunen berri, baita jarraitu beharreko protokoloaren berri ere (agiri honetan jaso). Harrera egunean, ikasle berriei Fakultateko tutoretza sistemaren gaineko informazio orokorra emango zaie.

Komenigarria da GIBk tutoretza saioen sistemaren garapenari buruzko urteko txostena edo jarduera memoria prestatzea, ekaineko azken astean, ikasturtearen ondoren. Txosten horiek zuzendaritza taldeari eta Kalitatea Bermatzeko Batzordeari (KBB) bidaliko zaizkio eta, horiei esker, Fakultateko tutoretza sistemaren eraginkortasuna aztertu ahal izango da eta, beharrezkoa izanez gero, hobekuntza ekintzak proposatu.



3. irudia.- Tutoretza prozesuaren urteko garapena jasotzen duen fluxugrama.

P2.3.1 prozeduratik hartua (P2.3.1: Ikasleentzako tutoretza, 2009ko martxoaren 15eko 1.01 bertsioa).





---

## Tutoretza prozesua

---

Irakasle tutoreek lehenengo bilerak egingo dituzte kasuan kasuko titulazio-koordinatzaileekin ikasturtea hasi aurreko bi asteetan, ikasturtean egin beharreko orientazio eta tutoretza ekintzak planifikatzeko. Bilera hauek bereziki garrantzitsuak izango dira gradu edo master berriak ezartzen direnean (tutoreek horien berri eman behar dute).

Ikaslea berria denean, tutoretza lana harrera egunean hasten da. Ikasturtean, tutoretza prozesuak bilerak egitea dakar berekin, nola taldekoak hala banakakoak. Beharrezkoa iruditzen zaigu gutxienez ondorengo jarduerak egitea:

- Titulazio-koordinatzaileak lehenengo mailako ikasleentzako **mintegi** orokorra egitea, titulazioaren eta tutoretza prozesuaren ezaugarriak azaltzeko. Mintegi horretan **mailako irakasleek eta ikasleek** parte hartu behar dute. Horrela, ikasleek beren tutorea ezagutu ahal izango dute. Komenigarria da mintegia ikasturteko lehenengo bi asteen barruan egitea. Gure gomendioa da jarduera akademikotzat har dadila eta, beraz, irakastorduetan egin dadila. Horretarako, ordu horietan dauden irakasgaietako irakasleek mintegian parte hartzeko aukera eman behar diete ikasleei.
- Gomendagarria da, ikasturtearen lehenengo hilabetean, **tutoreak tutoretzapeko bere ikasle guztiekin nahitaezko taldeko bilera** egitea. Bilera horretan, tutoreak eta ikasle berriek beren burua aurkeztuko dute eta azken hauek irakasle beraren goragoko mailetako tutoretzapekoekin harremanetan egin daitezten faboratuko da.
- Ikasle berriek **jarraipen fitxa** beteko dute taldeko bileran (fitxa agiri honen eranskinetan dago). Horri esker, irakasleak tutoretzapeko ikasle berria ezagutu ahal izango du. Gainera, tutoretza lanen jarraipena modu ordenatuagoan egitea eta, ondoren, prozesua ebaluatzea ahalbidetuko dio.
- Tutoretza lan horretan, irakasle tutoreak eta/edo ikasleak egoki irizten dituzten **elkarrizketa** guztiak egingo dira. Gutxienez hiru elkarrizketa egitea gomendatzen dugu:

1. Lehenengoa, taldeko bileraren ondoren, lehenengo kontaktu pertsonala ezartzeko eta elkar ezagutzen hasteko. Elkarrizketa horretan, ondorengoak egingo dira:
  - Fitxetako datuak bete direla egiaztatu.
  - Ikasturteak dirauen bitartean etengabe ikasi behar dela eta gomendatutako bibliografia modu erregularrean erabili behar dela nabarmendu.
  - Aukeratutako irakasgaietan antolatzen diren prestakuntzako tutoretza saioetara joan daitezten eta liburutegia erabil dezaten bultzatu.
  - Unibertsitateak antolatzen dituen ikasgelaz kanpoko jardueretan eta ikasleen ordezkari organoetan parte har dezaten proposatu.



2. Bigarren elkarrizketa, bigarren lauhilekoko lehenengo hamabostaldian. Bertan, ikasleek ordura arte egindako jardueri buruzko iritziak trukatu dira. Horrez gain, ikaslea, bereziki, ikasle berria, ikastegian integratzearekin erlazionatutako arazoak detektatzeko aukera egongo da. Gutxienez ondorengoak egitea gomendatzen da:
  - Fitxan azterketetako emaitzak jasotzea.
  - Lortutako errendimenduaren eta horretarako arrazoi posibleen gaineko hausnarketa egitea.
  - Lauhilekoaren programazioa benetan bete ahal izateko moduan egitea.
  - Irakasgaietan egon daitezkeen zailtasunei buruzko informazioa biltzea eta zenbait konponbide iradokitzea.
  
3. Hirugarren bilera, hurrengo ikasturterako matrikulatu baino lehen, ikasturtearen balantzea egin eta hurrengo ikasturtea planifikatze aldera. Ondorengoak egingo lirateke:
  - Errendimendu akademikoaren gaineko hausnarketa egin.
  - Hausnarketa horretan oinarrituta, hurrengo ikasturterako zentzuzko matrikulazioari buruzko orientazioa eman, bai irakasgai kopuruari dagokionez bai hautazko posibleen aukeraketari dagokionez.

Tutoreari zuzendutako kontsultek bere jardun esparrua gaintzen dutenean, hau dagokion titulazio-koordinatzailearekin edo dekanotzako eta/edo Unibertsitateko orientazio zerbitzuekin jarriko da harremanetan, kontsulta behar bezala bideratu ahal izateko.

Ikasturtea amaitzean, tutoreek eta titulazio-koordinatzaileek bukaerako bilera egingo dute, ikasturtean tutoretza lanak izan duen garapena ebaluatzeko asmoz. Bilera honek irakasleen artean esperientziak trukatzeko eta tutoretza lanerako ohitura onak elkarri jakinarazteko balio izango du.

Bilera horretan, koordinatzaileak beharrezko informazioa bilduko du Gradu Ikasketen Batzordeak dagokion bukaerako memoria edo jardura txostena egin dezan. Memoria edo txosten horretan, beharrezkotzat jotzen diren hobekuntza ekintzak proposatu dira.

---

## Gomendioak eta hobekuntza ekintzen proposamenak

---

Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakasleen tutoretza lana hobetze aldera, lehentasunezkoztat jotzen dugu ondorengo hobekuntza ekintzak gauzatzea:

- UPV/EHUK tutorearen lana aintzatestea.
- Matrikula formalizatu aurretik, ikasleek **beren tutoreari erakustea hautazko zer irakasgai aukeratu dituzten**. Ez dugu bazter uzten matrikula egin aurretik tutorearen onespena derrigorrezkoa izan dadila gomendatzea.
- Titulazio bakoitzean **tutoreen koordinatzailearen** irudia sortzea. Koordinatzaile hau dagokion Gradu Ikasketen Batzordeko kide izango litzateke. Bere eginkizun nagusia graduan Tutoretza Plana ondo garatzen dela zaintzea litzateke.
- **Ikasleei, bereziki berriei, tutoreen eta hauen eginkizunen gainean ematen zaien informazioa hobetzea.**
- Ikastegiko **irakasleen artean informazio kanpaina** egitea, tutoretza lanak ikasleen errendimendu akademikoa hobetzeko duen garrantziaz kontzientziatzeko.
- Ahal den neurrian, **topaketa guneak** ezartzea, tutoretza ekintzak behar bezala egin ahal izateko, bereziki taldeko bilerak direnean.
- **Irakasle tutoreei prestakuntza egokia** ematea. Halako ekintzak antolatzeke, ikastegiko zuzendaritza taldeak horretaz arduratzen diren UPV/EHUko zerbitzuen laguntza izango du.
- **Ikasleen prestakuntza osora bideratutako jarduerak** sustatzea.

---

## Eranskina - Ikaslearen fitxa

---

Jarraian, ikaslearen fitxarako proposamena jaso da. Fitxa honek bi eginkizun beteko lituzke:

1. Tutoretzapeko ikaslearen informazio pertsonala bildu, hain zuzen, tutoretza lana behar bezala garatzeko aipagarria den informazio pertsonala.
2. Egindako bilerak erregistratu eta unibertsitateko ikasketek dirauten bitartean ikaslearen jarraipena egin.



## TUTORETZA PERTSONALIZATUKO PLANA. IKASLEAREN FITXA

### DATU PERTSONALAK:

IZEN-ABIZENAK: .....	NAN zk.: .....	
JAIOTEGUNA: .....	LEKUA: .....	
HELBIDEA: .....		
HERRIA: .....	PROBINTZIA: .....	PK: .....
TELEFONOA: .....	HELBIDE ELEKTRONIKOA: .....	
IKASTURTEAN IZANGO DIREN HELBIDEAK: UPV/EHU .....		
HERRIA: .....	PROBINTZIA: .....	PK: .....
TELEFONOA: .....	MUGIKORRA: .....	

### KARRERARI BURUZKO INFORMAZIOA

JATORRIZKO IKASTETXEA:	SARR. AZI. NOTA:
MODALITATEA:	
ZERGATIK AUKERATU ZENUEN TITULAZIO HAU?	
ZER ITXAROPEN PROFESIONAL DITUZU?	
ZER DAKIZU IKASKETA PLANAZ?	
ZURE USTEZ, ZER ZAILTASUN IZANGO DITUZU?	
EGUNEAN IKASTEKO IZAN DEZAKEZUN DENBORA:	
BA AL DUZU BEKARIK?	

### UNIBERTSITATEAZ KANPOKO JARDUERAK:

LANA:	LAN MOTA:	ORDUTEGIA:
IKASTAROAK:		ORDUTEGIA:
KIROLAK:		ORDUTEGIA:
BESTELAKOAK:		ORDUTEGIA:



HIZKUNTZAK	IRAKURMENA			ULERMENA			MINTZAMENA		
	Oso ona	Ona	Ertaina	Oso ona	Ona	Ertaina	Oso ona	Ona	Ertaina
EUSKARA									
INGELESA									

OHARRAK:



2009-2010 IKASTURTEA

HARTUTAKO IRAKASGAIK	Deialdiak					
	1.	2.	3.	4.	5.	6.

Data: \_\_\_\_\_ Banakakoa  Taldekoa   
 Xedea/Arazoa/Aholkuak \_\_\_\_\_

Hurrengo hitzordua: .....

Data: \_\_\_\_\_ Banakakoa  Taldekoa   
 Xedea/Arazoa/Aholkuak \_\_\_\_\_

Hurrengo hitzordua: .....

Data: \_\_\_\_\_ Banakakoa  Taldekoa   
 Xedea/Arazoa/Aholkuak \_\_\_\_\_

Hurrengo hitzordua: .....

Data: \_\_\_\_\_ Banakakoa  Taldekoa   
 Xedea/Arazoa/Aholkuak \_\_\_\_\_

Hurrengo hitzordua: \_\_\_\_\_